



Malala, neska errefuxiatu baten istorioa

Aprende euskera con tus hijos y este cuento. Accede a la unidad didáctica y el

audiocuento en: <http://www.sorginatxirulina.eus/malala>

—Zer gertatzen ari da, aita? **Beldurtuta nago...** bonbak eta tiroak oso gertu entzuten dira.

—Lasai, **laztana**. – esan zion eta **gogotsu besarkatu** zuen aitak. – Laster hemendik ihes egingo dugu.

—Baina... nire lagunak? Gure etxea? Nora joango gara?

—Malala, **maitia**, hemen ezin gara geratu.

—Aita ¿qué está pasando? **Estoy asustada..** las bombas y los tiro se oyen de muy cerca..

—Tranquila, **cariño** — le dijo su aita **mientras la abrazaba con fuerza.**

Pronto marcharemos de aquí.

—Pero.. ¿y mis amigos? ¿Y nuestra casa? ¿Dónde vamos a ir?

—Malala, **amor**, aquí no nos podemos quedar.

Hurrengo egunetan Malalaren gurasoek bidaia prestatu zuten eta beste familia batzuekin txalupa batean sartu ziren. Horrela hasi zen bidaia luze hori.

—**Noiz helduko gara?** — galdetzen zuen Malalak.

En los siguientes días los padres de Malala prepararon el viaje y se metieron junto a otras familias en una barca. Así empezaron este largo viaje.

—**¿Cuándo llegaremos?** — preguntaba Malala.

Oso janari gutxi zeukaten eta ez zegoen ia lekurik. Pertsona batzuk oso gaixorik jarri ziren eta **hiltzear** egon ziren. Gainera, aita oso kezkatuta zegoen aduanarekin. Malalak ez zekien zer zen **dixosozko aduana** hori baina pasatu behar omen zuten, bestela txarto ibiliko zirela esaten zuen aitak.

Tenían muy poca comida y apenas había sitio. Algunas personas enfermaron y estuvieron **a punto de morir**. Además, su aita estaba muy preocupado por la aduana. Malala no sabía qué era esa **dichosa aduana**, pero al parecer, debían pasarla ya que sino lo pasarían muy mal.

Azkenean **egunsenti** batean lurra ikusi zuten eta guztiak txaloka hasi ziren. **Amen batean** jaitsi ziren txalupatik. Izan ere, han zeuden pertsona batzuek lagundu zituzten janaria ematen eta manta batzuk jartzen. Une horretan beste **bidaia mota bati ekin zioten**.

Por fin, un día al **amanecer** vieron tierra y todos comenzaron a aplaudir. En un **santiamén** bajaron todos de la barca y las personas que estaban allí les dieron ropa y les pusieron algunas mantas. En ese momento **emprendieron otro tipo de viaje**.



Herrialde horren biztanleak oso ezberdinak ziren eta beste hizkuntza batean hitz egiten zuten. Egia da bazeudela **Malalaren antzeko** beste ume batzuk. Besteek “errefuxiatuak” deitzen zizkieten. Malalak **faltan botatzen** zituen bere betiko lagunak, bere eskola, bere etxea... oso **urrun** zegoen!

En ese país la gente era muy diferente y hablaba en otro idioma. Es verdad que había otros **niños/as como Malala**, “refugiados” les llamaban. Pero Malala **echaba de menos** a sus amigos de siempre, su escuela, su casa... ¡estaba muy **lejos!**

—Malala, badakit **herrimina** duzula, denok daukagu baina orain hemen egin behar dugu gure bizitza. Momentu honetan ez zaude ondo eskola berrian baina **berehala** ondo moldatzen hasiko zara. **Hizkuntza menperatuko** duzu eta lagun berriak egingo dituzu. Egin kasu, bihotza – esan zion amak.

Malalak gauero negar egiten zuen eta nahiz eta oso adi entzun amak esandakoa, ezin zuen **sinetsi**.

—Malala, ya sé que sientes **nostalgia**, todos estamos igual, pero ahora nuestra vida está aquí. En este momento no estás bien en tu nueva escuela, pero **muy pronto** te adaptarás.

Dominarás el idioma y harás nuevos amigos. Hazme caso, corazón. — le dijo ama. Malala todas las noches lloraba, y aunque había escuchado muy atenta lo que había dicho su madre, no se lo podía **creer**.

Asteak joan, asteak etorri, eta aitak lan bat aurkitu zuen. **Pixkanaka-pixkanaka** Malala hobeto sentitzen hasi zen eta egun batean konturatu zen ez zuela gauean negarrik egiten. Eskolan, amak esan zuen moduan, lagun berriak egin zituen eta hango jolasak.. ez zeuden hain txarto!

Pasó el tiempo y su aita encontró un trabajo. **Poco a poco** Malala empezó a sentirse mejor y un día se dio cuenta de que ya no lloraba a la noche. Tal como había dicho su madre, hizo nuevos amigos en la escuela, y los juegos de allí.. ¡tampoco estaban tan mal!

Malala **gero eta hobeto zegoen**. Hori dela eta, beste errefuxiatu berriei laguntzea erabaki zuen eta astero hondartzara joaten zen. Janaria eta edaria eramaten zien baita besarkadak ere. Gaur egun, Malalaren familia askotan gogoratzen da bere herrialdeaz baina handik **ihes egitean** bizitzak beste aukera bat eman ziela ere izan zuen beti buruan.

Malala **cada vez estaba mejor**. Por ello, decidió que ayudaría al resto de nuevos refugiados y todas las semanas iba a la playa. Les llevaba comida y bebida, y abrazos también.

Hoy en día la familia de Malala se acuerda a menudo de su país pero no olvidan que **al huir** de allí, consiguieron otra oportunidad.